

EUSKALTZAINDIAREN I. DIALEKTOLOGI IKASTAROA

ORGANIGRAMA

1.1. Dialektologi Batzordea

P. Ondarra	— <i>Batzordeburua</i>
J. A. Letamendia	— <i>Idazkaria</i>
A. Irigoyen	— <i>Eragilea</i>
K. Errotaetxe	— <i>Eragilea</i>
A. M. Etxaide	— <i>Eragilea</i>
J. M. Satrustegi	— <i>Kontseilaria</i>
J. M. Etxebarria	— <i>Kontseilaria</i>
X. Bidegain	— <i>Kontseilaria</i>

1.2. Antolakizun Batzordea

J. San Martin
J. L. Lizundia
J. Zearreta
R. Badiola
M. P. Lasarte
B. Amundarain

DIALEKTOLOGI IKASTAROA

Deba-n, Apirilak 23-26, 1981

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-Andreak, agur, eta ongi etorriak izan zaitezela Dialektologi Ikastaro honetan parte hartuko duzuen guztiak!

Iaz Euskaltzaindiak bi erabaki hartu zituen: bat Gramatika batzordea, gramatika azterketak bultzatzeko, sortzea; eta beste bat, Dialektologi azterketak bultzatzeko, zerbait egitea.

Konkretuki, Ikastaro hau, Bera-n, joan den urteko Uztailean egindako bileren fruitua da. Han izendatu zen batzorde edo azpibatzorde bat ikastaro honen asmoa aurrera eramateko; eta batzorde horren ahaleginei esker, antolatu ahal izan da. Esker-rak eman nahi dizkiet bihotz-bihotzez antolatzaileei.

Aspaldidanik zeukan Euskaltzaindiak sail honetako zerbait antolatzeko kezka. Gure hizkuntza hobeki ezagutzeko inkestak, bilketak, azterketak bultzatu behar ziren. Gainera, presa, eta presa handia duela arazo honek ikusten zen. Izan ere, Euskal-Herrian badira oraino euskara moeta batzuk gaizki ezagunak, ongi aztertu gabe daudenak. Askotan, gainera, hizkera horiek galtzeko zorian daude, nahiz erderak nahiz euskara batuak irentsiak izateko zorian. Horiek biltzea eta aztertzea axolarik handieneko ekintza da. Eta orai egiten ez bada lan hau, bihar beranduegi izango da.

Guztiok dakite Euskaltzaindia bi saliez osatua dela: Iker saila eta Jagon saila. Beraz, euskara ikertzea eta ikerketa hauek bultzatzea, haren eginbide nagusienetako bat da. Eta euskara, ahalik eta ondoena ezagutua izan dadin, herri hizkeraren azterketok behar-beharrezkoak direla agirian dago.

Azkenaldi honetan beharbada lehenasuna eman zaio beste sailari, hots, Jagon sailari, eta horretarako baziren arrazoi batzuk begien bistakoak direnak. Hizkuntza mintzatuari eusteko, behar zen halako egitura bat prestatu, batu antzeko hizkera molde bat, alegia; euskara irakaskuntzarako, idatz zereginetarako etab. behar zen egokitu. Horri eman zaio axolarik eta kasurik gehiena azken urteetan eta zergatik hala egin den ez da konprenitzen zaila.

Baina Euskaltzaindiaren beste saila ere hor dago, hots, Iker Saila, eta ez dugu alde batera utzi behar.

Euskararen Atlasa ere hor da. Asmo zaharra, amets zaharra. Baina laguntzen eta baliakizune eskasiagatik Euskaltzaindiak gaur artio egiterik izan ez duena.

Egia da, bestalde, sail honetako ikerketak ez direla gure artean behin ere baztertuak izan, nahiz eta agian behar aina aitzinaturik ez egon. Eta hontan aparteko modu batean aipagarri ditugu atzerritik etortzen zaizkigun jaun jakintsuak. Ikerketa haue-tan lan guztiz balotsua egiten ari dira. Geure esker ona zor diegu. Guztion gogoan daude joan den udan Leioan ospatu ziren Euskalarien Jardunaldiak. Laster argitaratu-ko dira liburu batean Jardunaldi haietako lan guztiak.

Guztiok dakiten bezala, azken mendeko erdi aldean Bonaparte Printzea etorri zen Euskal-Herrira. Haren gidaritzapean burutu zen lana ez da hutsaren parekoa. Zoritzarrez, lan horretatik asko argia ikusi gabe dago oraindik. Geroago Azkue handiak ere lan eskerge eginen du. Euskaltzaindiak ere, bere lehen urteetan, Erizkizundi Irukoitza delakoa egin zuen (Hau uste dugu laster argitaratuko dela Ana Mari Etxaideren ardurapean).

Beraz, orai artio deusik egin ez dela ezin esan daiteke.

Baina aipatu ditudan lanok pixka bat urrun gelditzen dira. Eta beroien balioa den gutiena ere ukatu gabe, azterketa hauei bultzada berria emateko premia ikusten da. Gaurko erara, gaurko metodo eta teknikekin ikerketa horiei berritu bat eman beharra somatzen da.

Horretarako eta horregatik antolatzen da, bada, ikastaro hau. Espezialista diren jaun batzuk deituak izan dira. Izan ere, azterketa hauetan ibiliko direnek oinarritzko prestaera bat behar dute.

Badakigu lau egun gutiegi dela, baina nolabait eremu edo barruti honetan den problematikari hurbilketa bat egin ahal izango zaio. Irtengo ahal dira ikastaro hone-tatik landare berriak, iker lan hauetarako bakazio berriak! Hala biz.

* * *

Nos es muy grato expresar el más vivo reconocimiento de la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia" a los organizadores del presente cursillo, a los alumnos que se han matriculado para participar en él, a las entidades que con sus ayudas han hecho posible su celebración, y muy en particular a los señores profesores especialistas que, aceptando nuestra invitación, han tenido a bien honrarlo y real-zarlo con su presencia y con sus doctas lecciones. Aun dentro de su brevedad, Eus-kaltzaindia espera mucho de este Cursillo. Sabe que puede ser el inicio de algo que está llamado a progresar y a llegar muy lejos.

El País Vasco posee un idioma peculiar y original, de características muy diver-sas de los idiomas románticos con los que vive en contacto. Dentro de su unidad fun-damental, el euskara conoce una prodigiosa variedad de hablas dispares, algunas de ellas amenazadas de extinción. Esto no hace sino acuciar y urgir la necesidad de pro-mover las encuestas lingüísticas.

Si es verdad que la Academia en estos últimos años —por obvias razones de for-talecer la vida y el futuro del idioma— ha concedido particular atención a la forma-ción de un tipo de euskara común, esto en modo alguno se opone a que se promueva e impulse el estudio de las variedades del idioma y aun el cultivo de los viejos dialectos literarios. Había que hacer lo uno y no omitir lo otro.

Además estas encuestas lingüísticas tienen en el país una tradición y un pasado nada desdeñable. Ahí está la labor ingente que realizó el Príncipe Bonaparte con toda una constelación de colaboradores. Ahí está la tarea llevada a cabo por Azkue. Ahí está el Erizkizundi Irukoitza que acometió la Academia a los pocos años de ser fundada y que esperamos vea la luz en breve gracias a las diligencias de la Srta. Ana Mari Echaide. Ahí están también los estudios de Karmele Rotaetxe, Geneviève N^oDiaye, las investigaciones de tantos beneméritos vascólogos extranjeros, etc.

Pero todos estos trabajos, con todos sus méritos y valores, no nos dispensan de seguir adelante. El detenerse significaría la muerte. Se hace preciso actualizar dichos trabajos y continuarlos con los criterios y técnicas actuales, que no son ya exactamente los mismos que se emplearon al hacer algunos de los trabajos del pasado, que hemos mencionado.

Si se quiere que haya hoy continuadores de esta tradición, se hace necesario dotarlos y equiparlos de una preparación fundamental necesaria. A esto mira el cursillo. No es que con ello la Academia quiera invadir el campo de las Universidades. Ha querido más bien, dada la importancia y urgencia de estas tareas, dar un toque de atención, suscitar vocaciones para este quehacer, estimular, etc.

La de hoy es una iniciativa modesta —pues de cuatro días no se puede esperar logros espectaculares—. Aun así, la Academia cree que es sembrar algo de que puede prometerse mucho. No en vano contamos para el cursillo con especialistas de gran calidad y con alumnos también cualificados.

Ahí está también el viejo proyecto del Atlas de la lengua vasca, nunca hasta hoy realizado. ¿Será soñar con los ojos abiertos el pensar que este cursillo pueda significar algo así como poner la primera piedra en orden a la realización del mismo? No lo sabemos, pero nos gustaría que así fuera.

Creemos no estará fuera de lugar mencionar en este momento a un operario oscuro, humilde, pero infatigable y apasionado por la exactitud y el detalle, que tenía una conciencia muy viva de la trascendencia de esta labor. Nos referimos al P. Cándido Izaguirre, franciscano, muerto no hace aún muchos años en Aránzazu. No tenía, si se quiere, una preparación especializada, pero sí un conocimiento elemental sólido del euskara, de su gramática, etc. el P. Cándido nos ha dejado un Diccionario concienzudamente trabajado de la variedad de Oñate, amén de otros trabajos menores.

El otro día el P. J. Alústiza nos trajo unas páginas de cuaderno escritas a lápiz, como solía, por el P. Cándido. Según parece, las escribió como introducción al trabajo que presentó en el Congreso organizado por la Academia y celebrado precisamente en Aránzazu en 1956. En dicho Congreso el P. Cándido expuso el vocabulario referente a la elaboración del lino, tal como él lo recogió en Oñate. Pero la introducción que había escrito al trabajo la omitió, tal vez por razones de brevedad.

Hemos creído que de ninguna manera podíamos cerrar mejor las palabras inau-gurales que con dar a conocer estas líneas inéditas de este precursor, por así decir, de los trabajos que la Academia con el presente Cursillo desea promover. Como veréis, expresan una viva conciencia de la importancia que revisten estas investigaciones.

“Euskalzain argi ta lagun euskal-zaleak: Nunai azaltzen dira, batez ere baserri-tar jatorren ezaipñetan, oraindio iñork idaztietara jaso gabeko euskal-itz, esaera ta joskera bereziak.

Gure euskerea ezagutzeko zeoze egin danarren, oraindik egiteko dagoena begitu ezker, apur-apur bakarrik egin dala aitortu bear.

Egia: Azkue jaunak egin zuna, batek egitea, arritzekoa da. Baiña lan au denbora luzeko lana da ta, lagun askoren artean egin bearrekoa.

Badakigu zein illun, egundoko illunen, agertzen dala gure izkuntzaren etorkizuna. Orain, bertatik, lan ontan asi ezean, geroago lan au egiterik ez da izango. Zenbait lekutan euskerea azken-azkenetan, ogei edo berrogei urtetik gorakoak bakarrik itz egiten dutela dago. Leku oietan bizirik eutsiko dionik eztago. Baiña bizirik eutsi ezin badiogu, gure erriak eundaka edo millaka urtetan izan ditun berezitasun oiek, beintzat liburuetan ta al danik osoena gordetzea ez al dute merezi?

Txalogarria, koba ta jentil-baratzatan, gure aurrekoen ondarrak billatzen izerdiak ematea. Benetan goragarria, orain bi milla urteko erri-ondarrak, gure lurpetik ateratzeko dirua ematea, ta orduko arriak, eta ezurrak, eta ontziak, eta tresnak museotan arduraz gordetzea.

Baina ori egiten dan bitartean gaurko euskal-zaleok geure izkuntzaren atal guziak *batu* ta gordetzen ezpadiugu, ondorengoak, alegin guziak eginda ere, oiek arkitzerik ez dute izango, ezta lurpean ere, bein betiko galduko.

Oraindik umeak euskeraz ikasten duten tokietan ere lan ori, orain egin, emendik ogei urtera egin, alde aundia izango. Gaurko zarrak gogoan dauzkaten gauza ta izen asko izango dira ordurako aztuak.

Urte bete dala asi nintzan Oiñatiko euskeraren billa, gramatika ta iztegi ta esatera, al ditudanak batuaz, Oiñatiko euskeraren monografi edo antzeko zeoze egiteko asmoz.

Lan ontan ez naiz batere ikasia, ta nundik nabillen edo zertan ari naizen neuk igartzeko, egokien iruditu zaidan moduan asi naiz: ikazkin-iztegia, artzain-iztegia, liñagin-iztegia, bedar-iztegia, txori-iztegia tabar, aldedan moduan sailka ipiñiaz, aurretik galdera-sail bat gai bakoitzean antolatatu, ta andik "gauzen izenak" galdetu, al dala norberak izenik aitatu gabe.

Itz ezagunak ta ez-ezagunak, Oiñatin erabiltzen diran guztiak bildu nai nituzke. Lan zeia ta lan luzea da ontara: erri edo auzo baten barruan gauza batzuk modu askotara esaten. Adibidez: erderazko "abubilla"ri Oiñatin "argi-oillarra", "kiri-oillarra", "kiru-oillarra", "kiribillarra", "gabi-oillarra", "mendi-oillarra" esaten zaio; ta geiagori galdetu ezker, izen geiago ere agertuko lirake.

Baiña euskera txiki au batu ta ondo ezagutzeak, gure errien sustraiak edo, beintzat, beren inguruko erriekin izan dituzten artu-emanak argitan ipinteko ere, lagunduko lukela uste.

Al dala, berrogetamar urtetik gorakoak artzen ditut galdegiteko. Auzo bakoitzean bertan jαιο ta azitakoak, ta aurrekoak ere bertakoak izan dituztenak, auzo batetik bestera diferentzirik dagon ezagutzeko.

Oiñatiarrak beren izkerakin lotsatu egiten dira: beren ustez Tolosa-aldekoa da ederrena, ta kanpokoakin itz egiterakoan berena aldatzera egiten dute. Onegatik garbi esan bear zaie zertarako dan galdegitea; ta bigarren edo irugarren aldirako, dana dan moduan esatera jartzen dira.

Beren iritzian badu Oiñatiko euskereak bere berezitasuna ta bere barrutia. Muga ori etxerik etxe izentatzen dute Oiñatiarrak. Ta berezitasunik aundiena aditzean omen dago. Erriaren eritzia ontan ere baliorik aundienekoa. Oiñatiarrak: ein xeuat=ein xonat; ein xok-ein xon; ein xuau=ein xonau; ein xuai=ein xonai... Mondrao-aldekoak: ein juat=ein jonat; ein jok=ein jon; ein jueu=ein jonau; tabar...

Oiñatiarrak: aitta etorri xat, xatzu, xako, xaku, xatzue... Mundrao-aldekoak: etorri jat, jatzu, jako, jaku, jatzue, tabar.

Agirian dago diferentzi au, gaur ezagunena izan-arren, oso zarra ezjala, jota inguruko errietan sartu-ezkerokoa dala. Oraindik gaur ere Mondraotarrak ta Oiñatiarrak “ezetz” esaterakoan, batera esaten dute: etxuat eiñ=etxonat eiñ; etxok eiñ=etxon ein; etxuau eiñ=etxonau eiñ.

“Gure izkeriak “xi-xau” asko dako” esaten oiñatiarrak. Ta izan ere alde ontatik begitu ezker, Oiñatiko auzoak, beren artean beste diferentzi batzuk izanarren, “xi-xau” ontan danak bat egiten dute. Onegatik-edo esaten zaio Oiñatiri “Txantxiku-erri” ta oiñatiarrai “txantxikuak”.

Baiña “txantxikua” Oiñatin ez da zapoaren izena, ugarixo edo igelarena baizik. Ta aren umeari ere “apapuskixa” esaten zaio, ez “apapuskia”.

Aita Villasantek Batzar ontarako zeoze egiteko agindu zidanean, zer egin, zeri eldu ez nekiala egon nintzan. Gai asko oraindio ikutu gabe, beste batzuk oraindio galde asko egiteko, ta b. atutakorik edo “ondutakorik” bat ere ez daukat. Baiña galderik geien egin dedan saila, liñain-iztegia da. Arin ta lasterka-samar izan bada ere, ogei bat laguni galdegin diet gai ontan. Ta azkenean sail onixe eldu diot Batzar ontarako ere.

Batu ditudan itz geienak oraindio beren artikuluaikin daude; ta Oiñatiko itzak zela bukatzen diren ezagutzeko, ikusi lenengo zela aldatu oi diran Oiñatin itz auek, artikulua ezarritakoan: buru-burua; bero-berua; argi-argixa; erre-erria; uxakia-uxakia. Bergaran ta Antzuelan bezelaxe.”